

# ARRASATE PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko uztailaren 23a / 683. zenbakia

Orson Welles

Billy Wilder

Don Siegel

Anthony Mann

Charles Chaplin

Woody Allen

John Huston

Howard Hawks

Fred Zinnemann

Henry Hathaway

Luc Besson

John Ford

Sam Peckinpah

Jean Renoir

Pedro Almodóvar

Luis Buñuel

Abbas Kiarostami

Ernst Lubitsch

David Lynch

Juanma Bajo Ulloa

Tim Burton

Frank Capra

Serguei Eisenstein

Francis Ford Coppola

John Sayles

James Cameron

Jim Jarmusch

Brian De Palma

Gus Van Sant

Federico Fellini

Ed Wood

Julio Medem

Takeshi Kitano

Terence Fisher

Ingmar Bergman

Ford Coppola

Spike Lee

Alfred Hitchcock

Pier Paolo Pasolini

Montxo Armendariz

Asier Altuna

Stanley Kubrick

Luis Garcia Berlanga

Akira Kurosawa

Sergio Leone

Roman Polanski

Jean Luc Godard

Martin Scorsese

D. W. Griffith

Steven Spielberg

F. W. Murnau

Oliver Stone

Krzysztof Kieslowski

Quentin Tarantino

Emir Kusturica

Francois Truffaut

Lars Von Trier

## UDAKO FILM EMANALDIK

GAUR ETA BIHAR, MONTERRONEN, 22:30EAN



ORAIN ETA HEMEN: 'BERMI' HIL DA/6 • GAZTEAK: IBARREKO GAZTETXE ETA GAZTE BATZARRAK /13

AZALA: ALEX AZKARATE

OSASUN GIDA/20

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUBAKOITZA, 23**  
Amezua. Santa Marina 32 . . . . . 943 79 09 74

**ZAPATUA, 24**  
Azkoaga. Ferrerías 1 . . . . . 943 79 15 15

**DOMEKA, 25**  
Azkoaga. Iturriotz 17 . . . . . 943 79 79 99

**ASTELEHENA, 26**  
Irizar. Erguin 11 . . . . . 943 79 12 39

**MARTITZENA, 27**  
Amezua. Santa Marina 32 . . . . . 943 79 09 74

**EGUAZTENA, 28**  
Azkoaga. Ferrerías 1 . . . . . 943 79 15 15

**EGUENA, 29**  
Azkoaga. Iturriotz 17 . . . . . 943 79 79 99

**EGUBAKOITZA, 30**  
Irizar. Erguin 11 . . . . . 943 79 12 39

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea . . . . . 943 03 53 00  
Igualatorioa . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak . . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea . . . . . 943 79 90 11

**LARRIALDIK**  
SOS Deiak . . . . . 112  
Gürtze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

**ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta Jaiegunetan . . . . . egun osoa

**Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11
- Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11

**ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak . . . . . 943 45 87 44

**ERTZAINZA**  
Arrasate . . . . . 943 79 71 99

**SUHILTZAILAK**  
Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua . . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . 088

**MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
943 79 78 44

**GARRAIOAK**  
Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza . . . . . 943 79 81 57

**MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron . . . . . 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Juan parrokia</b>	<b>San Andres eliza</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 meza nagusia (euskaraz)	Domeka 10:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
12:30 (elebiduna)	
<b>San Frantzisko eliza</b>	<b>Santa Teresa eliza</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 20:00 San Isidron (euskaraz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:00 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b>	<b>Santa Marinako eliza</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (elebiduna)	Domeka 11:00 (elebiduna)

**OHARRAK**

**FERRERIASKO JAIK**  
Astelehenean, uztailearen 26an, Ferrerías kalean Santa Ana jaiak ospatuko dituzte. 12:00etan txistulariek kalejira egingo dute; 17:00etan, umeen jolasak eta txokolate-jana egingo dituzte. 19:00etan, txistulariekin kalejira, herri txikiteoa, lasterketa, joko eta lehiaketak. 19:00etan, meza; 21:00etan, herri afaria, dantzaldia eta helduendako jolasak.

**FILMAK MONTEIRONEN**  
Gaur, egubakoitza, *Atún y chocolate* filma emango dute Monterronen, 22:30ean. Bihar, zapatua, *Troya* emango dute ordu berean. Bi emanaldiak doan izango dira.

**NAZIOARTEKO DANTZAK**  
Martitzenean, hilaren 27an, Poloniako eta Maltako dantza taldeek ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian. 22:30ean izango da, eta doan.

**GAZTETXEAREN EKINTZAK**  
Bihar, zapatua, ibarreko gaztetxe eta gazte batzarren topaketa egingo dute gaztetxean. Goizetik iluntzera arte izango dira ekitaldiak. Horrez gain, astelehenean, hilaren 26an, Kubako jaiak egingo dute gaztetxean, iluntzean.

**AEDrenAGENDA**

**EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA**  
Seaskak eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak 164 euskal abestiz osatutako poltsikoko liburuxka argitaratu dute. AEDn dute salgai, oso merke.

**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Ikurrinaren ehungarren urteurrenean, omenaldia**

Orain dela hamar urte, Ikurrinak ehun urte bete zituen, eta herriko hainbat lehiotan Ikurrina ipini zuten. Udaletxean ere gauza bera egin zuten, Gobernu batzordean hala erabakita. Eta, horrez gain, osoko bilkuran, Ikurrina euskaldunon ikurra dela aldarrikatu zuten.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Adixo”*

Agur, agurra.  
— Bai, adixo, gero arte.



GORKA ORTEGA

**HAUGIROA!**

**MINIMOA** 10 °C  
Eguaztena, 14

**MAXIMOA** 32 °C  
Egubakoitza, 16

**ASTEKO EURIA (l/m²)** 23,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 14	26 °C	10 °C	- l/m²
Eguena, 15	29 °C	13 °C	- l/m²
Egubakoitza, 16	32 °C	16 °C	- l/m²
Zapatua, 17	24 °C	16 °C	- l/m²
Domeka, 18	23 °C	18 °C	- l/m²
Asteleheña, 19	28 °C	18 °C	23,6 l/m²
Martitzena, 20	28 °C	17 °C	- l/m²


Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Anbulantzia bat barrutik ezagutu**

Jose Luis Artola DYako kideak ambulantzia bat barrutik nolako den azaldu digu, astean berekin izandako solasaldian. Zuek ere ikus dezazuen, zapatuan 22:00etan berriro entzuteko aukera izango duzue. Horrekin batera, baina, besteak beste, Oñatiko Natur Eskolak antolatutako ibilbideak, udan animaliak zaintzeko aholkuak eta gona eta soineko egokiak aukeratzeko pista batzuk Maider Arriaran diseinatzailearen eskutik. Hori guztiori, zapatuan, 10:00etan.



**Abuztuaren 30ean itzuliko gara zuzenean**

Arrasate Irratiko langileoi ere heldu zaigu oporrak hartzeko unea. Oporrak hartu aurretik, baina, etxeko-lan guztiak eginak utzi ditugu. Batetik, domekarako azken hilabeteetan egindako elkarrizketa batzuk berreskuratzen dizkizuegu. Bestetik, abuztuaren 30ean irratia lagun izan dezazuen, musika aproposa prestatu dizuegu. 24 orduan irratia lagun izango duzue.

Besterik barik, Arrasate Irratiaren partetik ondo pasa oporretan eta bueltara arte!



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

**ZAPATUA**  
10:00 **Asteko elkarrizketak**: Jose Luis Artola, DYako kidea; Arnasa plataformako kide Mikel Eizagirre, Gipuzkoako errauste-gietaz...

**DOMEKA**  
10:00 **Elkarrizketa bilduma**: Leire Okarantza abokatua, zirkulazio isun sistema berriaz; Juanito Arzamendiri omenaldia; Edorta Aguirre gastronomoa, entsaldaren gainean; Afrika abeslaria; Eusebio Iñarra eta Espe Lizarralde, oporren gainean; Mikel Alberdi historialaria, Euskal Herriko bidelapurrez...

**ABUZTUAREN 29RA ARTE**  
Musika lagun, eta 08:00etan eta 13:00etan Euskadi Irratiko albistegiak.

**ABUZTUAREN 30ETIK AURRERA**  
09:00-11:00 **UDA GIROAN**  
Albistek.  
Elkarrizketak.  
Erreportajeak.  
Eguraldi iragarpena.  
Zozketak, zorion-agurrak.  
11:05 **Musika**  
12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**  
12:15 **Izarren ordua.**  
14:00 **UDA GIROAN errepikapena.**  
19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

## KALEINKESTA/ Usuek gustau egitten jatzu ala traba egitten dutzue?




**JESUS MARI TERRAZAS**  
Langillie



**ESTHER KORTAZAR**  
Langillie



**JABIER ARKAUZ**  
Erretiraue



**ABEL ROJAS**  
Erretiraue



**MARI KARMEN ARANBURU**  
Langillie



**AGURTZANE MARTIARENA**  
Langillie

Neuri ez dustie trabarik egitten. Ondo pentsetan jat usuek egotie. Ixa leku dane-tan dauz, eta herrixei bizi-tasune emuten dutzie, Umiek eta nagusixek usue-kin entretenidu egitten die.

Politte die, neuri gustetan jat, larregi ez badauz behintzet. Bizittasune emuten daue eta geure umie poz-pozik egoten da. Eskoriatzan ez dauz, bai-ñe gustetan jaku.

Asko gustetan jat eta gai-ñera neuk askotan jaten emuten dutziet. Bizittasun haundixe emuten daue. Animalixek gehixau zaindu biherko geuke, merezi daue-eta.

Neuri gustetan jat, bai-ña batzuk kejetan die leihue-tan kaka egitten dauelako. Akaso, uso larregi dauz, eta arazue kantidadien dau. Bestela, neuri ez dustie tra-barik egitten.

Neuri ez dustie trabarik egi-tten; alrebes, usuek gustau egitten jat, poztasuna emu-ten daue. Kejak daukonak exagerau egitten dauela uste dot. Animalixek egotie oso inportantie da, naturala da.

Neuri ez dustie trabarik egitten eta ez jat zikiñak pentsetan. Herrixei beste itxura bat emuten dutzie. Larregi egon ezkerro, arazue izen leike, bai-ña ez dot uste oingo kasue danik.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ANBULATORIOKO HITZORDUAK** Irakurle batek esan digu azkenaldian anbulatorioan birritan izan dela, eta haserre dagoela. Batean lehenengo orduan joan zen eta konturatu zen sendagile batzuk lanean hasi zirela emandako ordua baino geroago. Beste egun baten, bi lagunek mediku berarekin hitzordua ordu berean zuten. Horren ondorioz, gainontzekoen txandak berandutu egiten dira.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

### Udal langileen greba

Udal langileak egun osoko grebak egiten hasi dira. Langileak hitzarenarengatik protestan daude.

KIROLA /8

### Markel Blanco, Santanderren

Markel Blanco kontzentratuta egongo da Espainiako Estatuko Federazioarekin, Santanderren.

KULTURA /12

### Nazioarteko dantzak

Martitzenean, hilaren 27an, Poloniako eta Maltako taldeek dantza erakustaldia egingo dute.

## ASTEKODATUA

# 7

### GAZTE BATZARREK TOPAKETA EGINGO DUTE

Bihar, zapatua, ibarreko gaztetxe eta gazte batzarrek topaketa egingo dute Arrasaten. Ibarrekoez gain, gonbidatuak ere izango dira. Goizetik iluntzera arte hainbat ekitaldi egingo dituzte.

## IRAKURLEAREN TXOKOA

Irakurle batek esan digu oso haserre dagoela, zinekluba "oraindik bere ordutegian ez ezartzeagatik". Horren harira dio zine zaleenganako errespetu falta izugarria iruditzen zaiola, "hainbat eta hainbat gutunen ondoren, zinekluba oraindik ere beraien langileei ongi deritzon ordutegian egotea, gure ordutegira moldatu beharrean!". Horrez gain, irakurle hori kexu da honakoagatik: "hainbat aldiz izan bainaiz testigu bertoko langile baten faboritismoez, eta beraien ezagunei sarrera librean uzten ikusi dudalako". Horregatik, irakurleak zera dio: "Edo denentzat da dohain zine ikustaldia, edo inorentzat!"

## HERRITARREN BERBAK/ Aitor Zabalo



### Oporrak

Berriro ere abuztua gainera datorrigu. Batzuentzat oporrak etorriko dira, beste batzuek oporrak hartuta izango dituzte, eta beste batzuentzat berriz ikasketak utzi eta inguruko lantegitan lanean hasiko dira, hurrengo urterako diru apur bat lortzeko asmo-tan.

Edozer gauza egin behar dela ere, garai ezberdina da. Gauza askogatik izan daiteke, ingurunea ere ezberdina da; beroa, lanik eza, umeak eta gazteak jolasean ikusteak... Nahi duguna egiteko denbora ere har genezake. Agian aspaldiko partez denbora nola pasa pentsatu beharrean gaude, eta horretara oso ohituak ez egin eta.

Lagun batek komentatu zidan badela oporrak hartu eta estresa hartzen duen jendea. Laneko martxa behar duela eta, urduri jartzen dela. Nire ustez noizean behin ere

egonean egoteak ez digu kalterik egiten. Burua libre lasai utzia. Ekintzetan entretenitu barik. Gure ingurune honek lantegi izaera ahaztu eta ordutegiari begiratu barik bizi, ardura berezirik gabe.

Ez dakit nola joango diren opor hauek, baina buelta

izango dela badakit (edo espero dut behintzat). Jende asko dabil oporretatik bueltan zer izango duen jakin gabe, zer ikasi, non lan egin, ardura berriak onartu (aita eta ama izatearen kasu)... Oporrak lasaitzeko beharre-

an, opor ostekoaz arduraturik bizi dira batzuk. Normala da datorrenak kezkatzea, baina oporretan oporrak hartzea ere komeni da.

Gero geroakoak izango dira, baina beti bezala bakoitzari dagokiona ahal bezain beste disfrutatu. Ondo izan eta bueltan denok elkar ikus dezagula, eta bata bestearen berri kontatzeko umorea izan dezagula. Opor ostera arte, eta merezitakoaz ondo gozatu.

**"Oporretan lasaitu beharrean, opor ostekoaz arduraturik bizi dira batzuk. Oporretan oporrak hartu behar dira"**

# Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
55-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

**ASTEABIHITZETAN**

**Fagorrek, negozio unitate berria**

Joan den egunean aurkeztu zuen Fagor Etxetresna Elektri-koen sailak unitate berria: etxerako sistema aurreratuak deritzona. Fagorrek, baina, 20 urte daramatza arlo horretan lanean; eta, Nokia edo Philips moduko izen handiko enpresekin ibili da elkarlanean, gainera. Bereizitako negozioa sortuta, ordea, teknologia berri horri bultzada eman gura dio kooperatibak.

Teknologia berri horrek, besteak beste, aukera emango du labea telefono bitartez pizteko.

**Gura beste gazpatxo, Corazon de Encinan**

Extremadurako elkartean gura beste gazpatxo egon zen domekan, gazpatxoaren egunean. Gazpatxoak laguntzeko, baina, sardinak eta Extremadurako beste hainbat produktu eskaini zituzten. Jai horren bitartez, lagun artean eguna ezin hobeto igarotzeaz gain, Extremadurako gastronomia tipikoa eta hango kultura ezagutzera eman nahi izan zieten gerturatu ziren arrasatearrei.

Gauza batek egin zuen kale: eguraldiak. Izan ere, Extremaduran egiten duen beroari aurre egiteko edaten dute gazpatxoak, eta domekan Arrasaten ez zuen horrenbeste bero egin.

**Harrera familien programan esku hartzen**

Debagoieneko hamar familiak eskaera egin dute Gipuzkoako Diputazioan, harrera familien programan parte hartzeko. Harrera familien programan sartzen diren lagunek beraien seme-alabak hazteko gauza ez diren gurasoei laguntzen diete. Eta, gaitasunik eza hainbat arrazoiengatik izan daiteke: ekonomikoa, psikologikoa, drogamenpekotasuna...

Programa horretarako familiak lortzeko kanpaina egin du Diputazioak, eta guztira 170 familiak eman dute izena; horietako hamar debagoienekoak dira.



**Amaitu dituzte Leze Txikiko indusketa lanak**

Domekan amaitu zituzten Leze Txikin egin dituzten indusketa lanak. Uztaile hasieran hasi ziren lanok egiten, eta hiru aste egin dituzte bertan. Egubakoitzean, Aranzadi zientzia elkarteke lehendakaria eta gerentea izan ziren bisitan, Arrasateko Udaleko ordezkariekin batera.



**USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran**

*Eskaintza barik*

**H**ainbestetan iragarritako oporrak heldu dira, edo hobe esanda gu heldu gara uztailearen akaberara. Horrekin, urtero, batek baino gehiagok duen gogoeta egin gura dut. Arrasatear askok kanpora jotzen dute abuztuan, baina ez guztiek. Are gehiago, herriko enpresen egutegiak baldintzatuta, gero eta lagun gehiago gelditzen dira herrian

uztailearen hasieran eta bukaeran.

Zoritxarrez, abuztuan herrian gelditzen direnek ez dute aisialdirako inolako eskaintzarik. Egia da askok egunez beste nonbaitera freskatzera jotzen dutela, baina seguruenik iluntzeetan, tarteka, kultura ekitaldirik baleude, erantzukoluketela. Hala egiten dute, behintzat, gure inguruko

hainbat herritan; Bergaran eta Oñatin, adibidez.

Ekitaldi xumeak izan daitezke, aurrekontu handirik eskatzen ez dutenak; aire libreko film emanaldiak edo bestelakoak. Seguru herrian daudenek eskaintza eskertuko dutela.

Merezi du urte baten proba egitea. Ez ezazue jendetzarik espero. Hori harriztekoa izango litzateke. Baina, proba egin barik ezin da hori jakin, eta bada horretarako ordua.

**ASTEKOIRUDIA**



GOIATZ ARANA

**ARRASATERA ERE ETORTZEN DIRA BISITARIAK HEMENGO KONTUAK IKUSTERA**

Askotan esan ohi dute Arrasatek ez daukala ezer ikusteko eta bisitariak Arrasatera beharrez, ibarreko beste herri batzuetara joaten direla. Baina badira salbuespen batzuk esamesa horiek ezeztatzen dituztenak. Uztailean Bilboko ia mila ume izan dira Arrasaten. Bilboko Udalak antolatutuen uda-

leku irekietakoak izan dira. Besteak beste, Industria Erakusketa eta Udalako Ingurugiro Eskola bisitatu dituzte. Industria Erakusketan errementarien tresnak erakusten dizkiete eta tornua zelan erabili azaldu; eta Ingurugiro Eskolan garapen iraunkorraren gaia jorratzen dute. /I.B.

**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

**BITTORI**

**ERRETEGIA**

*Eguneko menua - Kartako menua*  
**Espezialitateak:**  
*legatz kokotxak eta txuletak*

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



## SANTA MARINAKO JAIETAN, UMEENDAKO JOLASAK ETA PUNTA-PUNTAKO PILOTA PARTIDUAK

**J**oan den asteburuan ospatu zituzten Santa Marinako jaiak, eta hainbat ekitaldi egin bazituzten ere, umeendako jolasek eta Obenerreka pilotalekuan egin zituzten pilota partiduak izan zuten arrakasta handien. Gaztetxoak ondo baino hobeto ibili ziren Gorritiren animaliekin: pottokak, oilarrak, txerri txikiak...

Era berean, arrakasta handia izan zuen beste ekitaldi bat pilota jaialdia izan zen. Nagusien norgehiagoketan jende asko egon zen pilota partiduak jarraitzen, baina gaztetxoenen pilota partiduak ere ikusteko modukoak izan ziren. Argazkian azaltzen diren gaztetxoak dira Santa Marinako pilota txapelketan esku hartu zutenak.



## ARROSTAITZ DANTZA TALDEAK MARGARI EGINDAKO OMENALDIA

**A**rgazkia joan den astean egin zuten, Marga Mercaderri egindako omenaldian. Lagun batzuekin bazkaltzera joateko esan zion Margaren alabak, eta Hostalera iritsi zirenean Arrostitzeko koadrilararekin egin zuten topo, sorpresa galanta! Arrostitz dantza taldekoek horrenbeste urtean egindako lana eskertu gura izan zioten Margari. Ondo bazkaltzeaz gain, lore sorta, dantzak eta bertsoak eskaini zizkioten Margari; nahikoa lan izan zuen malkoei eusten. Bazkalostean, sasoi onenean zeudenak Otxandiora joan ziren parrandan.

## MARINELN INFANTERIAN EGON ZIRENAK, AFARIAN KANTUAN

**A**rgazkian azaltzen direnek marinelen infanterian egin zuten soldadutza, Ferrolen. Koadrila horretako lagunak, baina, hainbat belaunalditakoak dira, eta garai bakoitzean bizi izandakoak kontatzeko urtero egiten dute afaria, marinelen zaindariaren egunean, Karmen egunean, hain zuzen. Fundamentuzko marinelen moduan, gainera, afalostean marinelen salbea abesten dute. Ezkerretik eskuinera: Olaizola, Ortubai, Landaluze, Antsuategi, Aranguren, Arabaolaza, Arrieta, Azkarate, Zabala eta Bouzon.

# Olarte kantoia itxi egin behar izan dute, egunotan kalera horma zatiak jausi dira-eta

UBANE MADERA

Martitzenean Olarte kantoia hesi batekin itxi behar izan zuten, horma zatiak jausi dira-eta. Jakinarazi digutenez, hala utziko dute harik eta arriskua saihesteko neurriak hartzen dituzten arte. Edozelan ere, aurrera begira, konponketa lanak egin beharko dituzte.

Udaltzaingotik jakinarazi digutenez, horma zatiak jausi dira egunotan Olarte kantoira. Esan digutenaz, hareharri modukoa jausi da. Eta gaineratu digute ez dela halako zerbait gertatzen den lehenengo aldia. Hala, oraingo honetan, hesi batekin itxi dute kalea, herritarrek babes-teko. Martitzenean ipini zuten hesia eta hesiarekin itxita segituko du kantoiak harik eta eraikin horren jabeek gutxieneko konponketa lanak egiten dituzten arte.

Dena dela, eta argazkian ikusten duzuen moduan, herritarrek ez diote jaramon larregi egiten abisuari.

## GUTXI ZAINDUTA

Kontua da etxe hori, Andikano Zelaa eta Loiola Oñaz Irazabal-



U.M.

Herritarrek ez diote kasu handirik egiten Udaltzaingoak ipinitako abisuari.

darren jauregia dezente antzinakoa dela. Eraikinaren egoera aztertzen ibili den arkitektoaren esanetan, mantenu falta du. Gauza da XVII. mendeko eraikina dela eta halakoetan, noizean

behin berritze lanak egitea komeni izaten dela.

Udaletxekoez gertatutako abisatu diete etxearen jabeek eta haiek arriskua saihesteko konponketak egin beharko dituzte

orain. Berriz, aurrera begira, berrikuntza lan handiagoren bat ere egin beharko dute Andikano-Loiola jauregian. Bien bitartean, inguru horretan adi ibiltzea komeni da.

## Astehenean, Santa Ana jaiak ospatuko dituzte Ferreriasen

U.M.

Goizetik gauera arteko egitaraua prestatu dute Ferreriaskoek kaleko jaiak ospatzeko astehenean. Besteak beste, umeendako eta gazteendako jolasak, herri afaria eta lehiaketak egingo dituzte.

Goizean etxafuegoekin hasiko dituzte Santa Ana jaiak, 09:00etan. Eta eguerdian, txistulariek kalejira egingo dute kalean gora eta behera. Gero, arratsaldean segituko du jaiak. Gaztetxoendako ekitaldiak izango dira 17:00etan

hasita: haur jolasak, zaku lasterketa, txokolatada... izango dira.

### ILUNTZETIK AUERRERA GEHIAGO

Hortik aurrera, nagusiagoendako ekitaldiak izango dira: 19:00etan, Ikurrina jasoko dute; txistularien kalejira izango da; herri txikiteoa ere izango da eta baita ere 7 eta 14 urte bitartekoendako probak. Ordu berean, 19:00etan, meza esango dute kaleko hildakoen alde. Berriz, 21:00etan herri afaria egingo dute; 23:00etan erromeria eta bukatzeko, 24:00etarako zaku lasterketa eta helduendako jolasak iragarri dituzte.



## Juan Jose Uriarte 'Bermi' hil da

Astehenean, hilak 19, Juan Jose Uriarte Muruaga *Bermi* hil zen, Iruñean, ospitalean zegoela. 57 urte zituen. Ezaguna zen *Bermi* Arrasaten, besteak beste, Udaleko zinegotzia izan zelako 91-95 agintaldian. Hain zuzen ere, Euskara Saileko buru izan zen. Eta tarte horretan, herriko bestelako ekimenak bultzatzeaz gain, lan handia egin zuen ARRASATE PRESSen, Arrasate Irratiaren eta ATBren hastapenetan. Bermeon jaio zen; hortik zetorkion goitizena. Gaztetan Arrasatera etorri zen, Politeknikoan ikastera, eta harrezkero, MCCren baitan ibili da lanean.

## LABUR

### Ume txikiak dituzten gurasoendako masaje ikastaroa

Gaur, egubakoitza, ume txikiak dituzten gurasoei zuzendutako masaje ikastaroaren bigarren eskola egingo dute. Honakoa da ordutegia: 0-1 urte bitarteko umeen gurasoendako, 16:00etatik 17:30ak arte; eta urtebete eta 3 urteko umeen gurasoendako, 18:00etatik 19:30ak arte. Nerea Mendizabal psikopedagogo eta haurrentako masaje-hezitzailea izango da irakaslea. Musakolako igerilekuan da ikastaroa, eguraldi txarra eginez gero, gimnasioan. Helburua, berriz, gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa bultzatzea da, sexualitatearen ikuspuntutik; eta baita gorputzaren ezagutza lantzea ere. Ekimena Arrasateko Sexologia Zerbitzuak antolatuko du.

### Informatika erabilia ureztatuko dituzte lorategiak

Apurka-apurka, lorategiak ureztatzeko sistema automatizatzen dabil Arrasateko Udala. Zenbait lorategitan ipini dute dagoeneko sistema berria eta gainerakoetan laster ipiniko dute. Udalaren helburua da lorategien ureztatze sistema informatika bidez kontrolatzea.

Bestalde, horrekin batera, herriko lorategietan belar berria ipiniko dute. Kontua da Arrasaten 370.000 metro karratu inguru berdegune dagoela eta horietatik 29.000 metro karratu huntzez beteta dagoela. Oso zikina da huntza. Hala, hori kendu eta belarra ipintzea da herriko lorazainen asmoa.

### Ehun lagunek baino gehiagok eskatu du aparkalekua Biterin

Udalak jakinarazi duenez, ehun lagunek baino gehiagok eskatu du Biteri aparkalekuan autoarendako toki bat. Edozelan ere, oraindik, abuztuaren bada eskaera egiteko aukera (Anboto higiezin agentziak). Gogoratu beharra dago lanak bukatu aurretik izena ematen dutenek beherapenak izango dituztela. Guztira, 272 leku izango ditu Biteri aparkalekuak. Hala, jasotako eskaerak gehiago badira, erdigunean bizi direnek lehentasuna izango dute. Bestalde, Laubideko aparkalekura ere bidera ditzaizkete eskatzaileak.



## BEHEKODENDATIK

## Iban Peñakoba

## PEÑAKOBA AUTOESKOLA

XABIER URZELAI

Oporrak hartu aurretik buruhauste bat baiño gehixaukin ibilli da Iban, autoeskolako huelgie dala-eta. Gurasuen autoeskolan egitten dau lan, eta hasieran administraziño lanetan ibilli bazan be, azkeneko 10 urteiek irakasle moduen egin dittu.

## Ze falta jako Mondragueri?

Automobillan asko ibiltten nazenez, aparkalekuak esango dot.

## Eta, ze dauko ona?

Herri bat izeten jarraitetan dauela.

## Ze falta jatzu zeuri?

Ez dot ezer igerten faltan.

## Eta, ze dauketzu sobran?

Batzuetan, *pronto* txarra. Eta, gero kontureketan naz tontokerixa batengatik hasarretu nazela.

## Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

Pelikula gutxi ikusten dot / *La herbolera* / *Thin Lizzy*.

## Momentu honetan nora juen-go zitzake gustora?

Nepalera.

## Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Ezer gutxi egitten dot, hortan, ezin dot gauza haundirik esan.

## Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Automobille, argi dau.

## Denpora librien ze egitten dozu?

Mendixe gustetan jat; oiñez ibiltteko, bizikletan, eskietan...

## Kapritxo bat.

Nepalera juetie, *trekking* bat egittera.

## Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.


Gaztelugatxen egon naz oin dala gutxi, eta oso paraje politte pentsau jaten.

## Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Euskerien egoerie normalizau egin dala, edo Euskal Herrixen eta Estatuaren arteko gatazkie konpondu egin dala.

## Azkeneko egunotan lanuztiekian ibilli zarie.

Bai. Eta azterketa batzuk ber-



*"Gaztiek nagusixek  
baiño fazilidade  
haundixae daukie,  
nahiz eta gogo  
txikiñae ipiñi"*

tan behera geratu dienez gure lanien eragiñe euki dau. Oin, gaiñera, jente askokin ibiltten gare.

## Gehixenak gaztiek, ala?

Bai, urteko sasoi honetan bai. Selektibidadie bukatu berri gazte asko etorten die karneta ataratera. Gaiñera, nagusixek baiño fazilidade haundixae daukie ikeste-ko. Gogo txikiñae jarten daue, baiñe errexau ikesten daue. Gustora ibiltten naz gaztiek.

## Egun dana gora eta behera... Lanetik urtendakuen gogorik be ez dozu eukiko, ba, automobillekin ibiltteko.

Ez pentsau, ez dot eukitten problemarik. Automobillen ibilttera ohittute nau, eta lagun artien hor

*"Biajie egin aurretik  
konprobau  
automobille ondo  
dauen; aberixak ez  
die kasualidadie"*

ziher jueten garenien be neuk hartzen dot automobille.

## Bolantiekian ala baterixiekian zara abillau?

Ez dakit ba! Bolantien kondukziño normala egitteko ondo moldaketan naz, eta baterixiekian be hortxe ibiltten naz. Baterixiekian, baiñe, zerbait barrixe ikesten dotenien kontureketan naz zenbat hobetu leiken, eta... Horrek ez dauko akaberarik!

## Bakaziñuek datozela-eta, gomendixorik?

Beti esaten dana: belozidiekian eta alkoholakin kontuz ibiltteko. Eta biajie egin aurretik automobille ondo dauen konprobetie, gero aberixak egoten die-eta.

## NIREBIDAIAHURA/ Espe Lizarralde

Egipto / 2004ko maiatzean

Espek hamar egun egin zituen Egipton, maiatzaren 21etik ekainaren 1era arte. Eta, liluratuta etorri zen handik: "Beste leku batzuetara ere bidaiatu izan dut, baina inondik ez naiz horren hunkituta itzuli. Aspaldi esan nuen ez nuela gura gu baino pobregoak diren lekuetara joan; pobrezia ikusi dut, baina oso bidaia polita izan da". Espe Arrasateko eta Bergarako beste bost lagunekin batera joan zen Egiptora: "Bilbotik Madrilera joan ginen, eta handik Aswanera. Hegazkinetik jaitsi eta zuzenean joan ginen itsasontzira. Egia esan, itsasontziak baino gehiago, flotatzen zuten hotelak ziren. Lehen itsasontzia, Radimis I.a izenekoa, 200 lagunendako prestatuta zegoen, eta 25 lagun baino ez ginen izan. Pentsa dezakezuen moduan, ondo baino hobeto ibili ginen, zerbitzua oso ona izan zen-eta. Guri begira zeuden egun osoa; orduan konturatu nintzen aberatsa izateak zer izan behar duen".

Radimis I.a itsasontzian Aswandik Abu Simbel-erako bidea hartu zuten: "Niloko bazarretak oso politak dira, landaretza handikoak. Gainera, hango bizilagunek erreka ondoan lan nola egiten zuten ikusi genuen. Hurrengo egunean, falukan izeneko txalupa modukoetan nubiarren herria bisitatu genuen, eta bidaiako gauza ikusgarrienetakoa izan zen. Ez dira egiptoarrak, beste arraza bat da, erreserbetako indiarren moduan zeuden han".

Nilon zehar ibili ziren hiru egunetan monumentu asko ikusi zituzten: "Luxor bisitatu genuenean barre apur bat egin genuen, eskolta eraman genuen-eta. Militarrek lagundu ziguten, atentatuen beldur. Baina gurekin zihoazen eskoltak zelako gizajo aurpegia zeukan ikusi izan bazenute...". Luxordik Nasser lakura joan ziren: "Nasser lakuak 200 kilometro koadro ditu, eta han ere itsasontzian ibili ginen. Gure itsasontzian 16 lagun baino ez ginen izan, eta 300 lagunendako lekua zegoen". Oporretan Egiptora joango zaretenoi eman dizuegu argibideren bat edo beste, baina ez dugu amaitu, irailean jarraituko dugu.



*"Luxor-era  
eskoltekin  
joan ginen;  
atentatuen  
beldur dira"*

XABIER URZELAI



Espe eta bi lagun esfingearen ondoan ateratako argazkian.



Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

## Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?  
Anima zaitetz, zure abenturak  
gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



Bonaventure  
Diesel  
Pepe  
Levis

Otalora z/g Behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

Mobiliario  
ARENZA

- ALTZARIAK  
- DISEINUA  
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



FUTBOLA

# "Realeko bazkide izatea ondo dago, baina Mondrari ere lagundu egin behar zaio"

Mondrako zuzendaritzakoek batzar orokorrean adierazi zuten datorren denboraldia amaitzean taldea behin betiko utziko dutela

XABIER URZELAI

Mondrak batzar orokorra egin zuen joan den egubakoitzean, eta bi gauza geratu ziren argi Monterronen: lehena, Mondraren zorra apur bat gehiago txikitu dutela; eta bigarrena, datorren denboraldia oraingo zuzendaritzaren azkena izango dela.

"Aurreko batzuetan ere adierazi izan dugu hori, baina oraingoan argi daukagu datorren denboraldia azkena izango dela. Azken baten, urte asko daramatzazunean gauza bera egiten lasaitu egiten zara, eta hori ez da ona. Mondrak jende gaztea behar du, ideia berriekin. Batzarrean esan genuen erreleborik ez badago Mondra desagertuko egingo dela, baina ez dut uste horrelakorik gertatuko denik". Horiek dira joan den astelehenean Jose Luis Ezkurrak Arrasate Irratiari egindako adierazpenak.

Mondrako zuzendaritzak urte asko egin ditu taldea zuzentzen,

eta lehenago ere taldea uzteko nahia agertu izan badute ere, errelebo falta zela-eta Mondrarendako lanean jarraitu dute. Oraingoan, baina, badirudi esandakoa bete egingo dutela.

Kirol arloari dagokionez, Mondrako presidentek positiboki baloratu zuen aurtengo denboraldia: "kirol taldeek lan ona egin dute, eta alde horretatik gustura gaude. Ekonomikoki, uste genuena baino gehiago gastatu dugu, azkeneko momentuan beste talde bat gehiago sortu zelako, eta hala ere 1.430 euroko irabazia izan dugu. Hori, baina, ez da zorra kentzeko nahikoa, eta datorren urtean ahaleginduko gara horretan.

## BAZKIDEEN BEHARRA

Jose Luis Ezkurrak bazkide berriak lortzeak duen garrantziaren gainean ere egin zuen berba: "Mondrak bazkide gehiago behar ditu. Ondo dago Realari laguntzea, baina herriko taldea dago lehenengo. Realak, gainera, gu bezalako taldeak behar ditu".



Argazkian, Jose Luis Ezkurra eta Patxi Iartza egubakoitzean egin zuten batzar orokorrean.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA

## Markel Blanco Santanderren dago, kontzentratuta

X.U.

Kadete mailako Arrasateko atleta gaztea Santanderren dago Espainiako Federazioarekin kontzentratuta. Eguaztenean abiatu zen Santander aldera, eta astebete egingo du han, uztailaren 28ra arte.

Markel Blancok bere adineko estatuko atleta onenekin igaroko du astebete Santanderren. Han, hainbat azterketa egiteaz gain entrenamenduak izango dituzte. Espainiako Txapelketako 1.000 metroko proban txapeldunorde izan berri den atletak oporrak hartuko ditu Santandertik itzul-

tzerakoan. Denboraldia, berriz, azaroan hasiko dute: "Orain artekoa, baina, jolasa izan da, datorren urtean gazte mailan ibiliko delako, eta 8.000 metroko lasterketetan korrituko duelako", esan digu Fernando Zufiria entrenatzaileak.

## JONATHAN PEREZ, BARTZELONAN

Jonathan Perez Real Sociedad taldeko pertika jauzilaria Bartzelonan izango da asteburuan, Liga Txapelketan. Arrasatearrak bost metroko jauzia egitea du helburu, Almerian jokatu duten Espainiako Txapelketara sailkatzeko. Mondragoetarra ondo dabil entrenamendutan, marka onak egiten.


## FOTOKIROLA



## GR-11 ibilbideko zenbait etapa egiten ibili dira Arizmendiko ikasleak

Arizmendiko DBH3ko hogeit hamar ikasle eta hiru irakasle Euskal Herriko hainbat txokotan ibili dira GR-11 ibilbide ezaguneko hainbat etapa egin guran. Ibilaldi politak egiteko asmoarekin joan ziren Pirinio aldera, baina izan duten eguraldi txarra dela-eta, etapa bat baino gehiago bertan behera utzi behar izan dute.

Bidaia hori uztailaren 5etik 11ra arte egin zuten, eta egun horietan ekaitz arrisku handia izan zen Pirinioetan. Irakasleen esanetan, mendian gura baino gutxiago ibili badira ere ikasleak oso gustura itzuli dira, eta datorren urtera begira horrelako beste txango bat egiteko asmo sendoa agertu dute. Goialdean azaltzen den argazkia Iزابako kanpinean atera zuten. /X.U.



ARRASATE ATLETIKO TALDEA

Bartzelonan, bost metroko jauzia egitea du helburu Jonathan Perezek.

# Ferreriasko jaiak

# 2004

## Uztailaren 26an:

09:00etan etxafuegoak

12:00etan txistularien kalejira

17:00etan Haur jolasak, zaku lasterketa, txokolate-jana, e.a.

19:00etan Ikurriña jaso. Txistularien kalejira, herri poteoa, 7 eta 14 urte arteko mutikoendako lasterketa, joko eta lehiaketak

19:00etan kaleko hildakoen aldeko meza parrokian

21:00etan herri afaria

23:00etan dantzaldia Gau-Alai taldearen eskutik

24:00etan zaku lasterketa eta helduentzako jolasak

Body piercing eta  
tatuajeak



Ferrerias, 28 behea, B  
Tel.: 943 79 92 84

**MERKEKILO**

Oihalak  
Gortinak

Ferrerias, 5  
Tel.: 943 79 15 00

**CARMEN**

Ile apaindegia  
Solariuma

Ferrerias, 50  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 03 63

*Urizar  
ostatua*

Ferrerias 15  
943 79 12 93

ILEAPAINDEGIA

**ILEA**  
UNISEX

Ferrerias 14  
943 79 87 62

**Jovi**

10.000  
KOLORETAKO MENUA

Ferrerias 36, behea. Tel.: 943 79 12 87



**GORKA ILE APAINDEGIA**

Abuztuan zabalik!

16etik 22ra izan ezik

Astelehenetik-ostiralera 09.30-20.00  
Larunbatetan 08.00-14.00

*GORKA*  
ileapaindegia


Ferrerias 35 Arrasate  
Tel : 943 77 13 78




**angela**

Ferrerias 35. Arrasate. 943 79 88 23

Neska eta mutilentzako gazte moda



**SUGAR**

Ferrerias 28 C. 943 77 12 54. ARRASATE



**Etxe**  
mobiliario y  
decoracion

**N & N sol**

Solarium  
eta  
estetika zentroa

Ferrerias kalea 28, behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 64 57



**BASATI**  
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711762

**OBRAK ETA  
BARRUKO  
PROIEKTUAK**

Ferrerias, 17  
Tel. eta faxa:  
943 79 03 17  
ARRASATE

# Martitzenean, Poloniako eta Maltako dantza taldeen ikuskizuna, Amaian

IKER BARANDIARAN

Martitzenean, hilaren 27an, nazioarteko dantza erakustaldia egingo dute Amaia Udal Antzokian. 22:30ean, Poloniako eta Maltako dantza taldeek ikuskizuna egingo dute, eta doan izango da.

Ez da lehenengo aldia uztailean Arrasaten atzerriko dantza taldeek ikuskizuna egiten dutena. Portugaleteko Folklore Jaialdira hainbat dantza talde joaten dira, eta horretaz baliatuta, horietako batzuk Arrasatera etorri ohi dira. Aurten bi talde etorriko dira: Maltako Paul Curmi Dancers eta Poloniako Nekazaritza Unibertsitateko ?Any konpainia, hain zuzen ere.

## BERRESKURATUTAKO DANTZAK

60ko hamarkadan Maltako gobernuak eskatu zion Paul Curmi dantza adituari uharterdiko dantzak berreskuratzen. Curmi hango ohiturak berreskuratzen ibili zen, eta koreografiak idatzi zituen. Dantza horiek, besteak beste, Erdi Aroko aristokraten, arrantzaleen, jaietako eta ezkontza ospakizunen usadioak uzartzen dituzte.

Paul Curmiren emazte Maryk dantzarien jantziak egin zituen. Horretarako, Maltako museoak eta liburutegiak aztertu zituen. Lan horrengatik guztiagatik, Maltako dantza taldeak fundatzaileen izena hartu zuen.

Paul Curmi taldeak ia egunero egiten ditu dantza erakustaldiak Maltaan, turistendako.




Azkeneko urteotan, nazioarteko hainbat dantza talde izan dira Arrasaten.

Poznango Nekazaritza Unibertsitateko ?Any dantza konpainia 1974an sortu zuten. Berez, taldea Wielkopolskako den arren, dantzariak saiatzen dira Poloniako dantza mota gehienak eskaintzen, eta horrela eskualde guztiak ordezkatzeko.

Taldeko partaideak Poznango Unibertsitateko ikasleak dira, eta eskola handia dute.

?Any dantza konpainiak, besteak beste, honako dantzak eskainiko ditu: Polonaise, Mazurka, Oberek, Kujawiak, Krakowiak, ezkontzetako dantzak, udakoak, Gabonetakoak...

Oso jantzi koloretsuak erabiltzen dituzte, eta dagoeneko, 70eko hamarkadatik gaur egunera arte, Europa osoan egin dituzte erakustaldiak.



## Valentin Arana arrasatearraren margolan erakusketa, Zarautzen

Valentin Arana margolari arrasatearra erakusketa ipini du, beste bi lagunekin batera, Zarauzko Kayua galerian (Balea 2). Uztailearen 16tik 30era egongo dira ikusgai horien lanak. Aranak hamabi lan ipini ditu erakusketan, guztiak olioak: arrantzaleen erretratuak, portuko paisaiak, Errioxakoak... Aranak erakusketa asko egin izan ditu: Arrasaten, Hondarribian, Donostian... /I.B.

# Gaur, egubakoitza, eta bihar film emanaldiak Monterronen

I.B.

Udaleko Kultura Sailak, Monterron parkeko zuhaitzen egoerak baldintzatuta, asteburu bakarrean egingo du uztaileko film emanaldia. Gaur eta bihar emanaldiak egingo dituzte, doan, 22:30ean.

Udaleko Kultura Sailak uztailean filmak emateko asmoa zeukan, baina Monterrongo zuhaitz batzuen egoera ez da ona, eta hori konpontzeko, Udalak parkea ixteko asmoa du. Azkenean, erabaki horren ondorioz, asteburu bakarrean emango dituzte filmak; gaur eta bihar. Bi emanaldiak 22:30ean izango dira, eta doan.

Gaur, egubakoitza, *Atún y chocolate* emango dute. Filmaren zuzendaria —lehen filma du— eta gidoiaren egilea Pablo Carbonell da. Filmak 100 minutu irauten du. Carbonell oso ezaguna da. Los Toreros Muertos taldeko abeslaria izateaz gain, aktore, telebista aurkezle eta idazlea ere bada. Komedia da. Hiru arrantzale krisi garai bat bizi izaten dabilta. Hiruretako baten semeak jaunartzea egin gura du, baina gurasoek ez dute dirurik eta

gainera ez daude ezkontuta. Gaur asko aldatu beharrean egongo dira. Lagun bat, bikoteari laguntzeko, hegalabur bat lapurtzen saiatuko da, baina kontua ez da erraza izango.

Filmeko protagonistak honako hauek dira: Pablo Carbonell (*Lo mejor que le puede pasar a un cruasán, Obra maestra...*) eta Maria Barranco (*El oro de Moscú, Manolito Gafotas...*).

## 'TROYA' FILM ENTZUTETSUA

Bihar, zapatua, *Troya* filma emango dute Monterronen, 22:30ean. Film horrek 163 minutu irauten du, eta Wolfgang Petersen da zuzendaria (*La historia interminable, La noche de los cristales rotos, La tormenta perfecta...*).

Antzinako Grezian, Troyako printze Paris eta Espartako erregina Helena maitemindu egingo dira. Melenao erregeari emaztea lapurtzea ezin da barkamen barik gelditu, eta horren anaia Agamenonek, Micenasko erregeak, gerra hasiko du Troyaren aurka.

Protagonistak honako hauek dira: Brad Pitt (*El club de la lucha, Snatch, cerdos y diamantes...*), Eric Bana, Orlando Bloom eta Sean Bean, besteak beste.



Troya filmak ehun milioi dolarreko aurrekontua izan zuen.

## LABUR


### Lore Gazteak taldearen euskal dantza emanaldia azarora atzeratu dute

Joan den eguaztenean, uztailearen 21ean, egitekoa zen Lore Gazteak taldeak azkeneko bederatzi urteotan Monterronen egin duen dantza emanaldia. Hala iragarri genuen ARRASATE PRESSen. Kontua da egun horretarako deituta zegoela udal langileen greba, eta ikuskizuna egiteko udal langileen laguntza ezinbestekoa dutenez, eguna aldatzea erabaki zuten.

Ikuskizunean esku hartuko duten dantzariak eta musikariak eta Udaleko Kultura Sailak eztabaidatu ondoren, guztien artean erabaki zuten emanaldi hori azaroran egitea Amaia Udal Antzokian. Oraĩndik ez dute eguna zehaztu.

Lore Gazteak taldeak azken bederatzi urteotan ikuskizuna egin du Monterronen (eguraldiak lagundu duenean), ikasturtea bukatzeko. Ikuskizun horretan dantzari txiki eta helduez gain, gaitariak eta txistulariak ere esku hartu ohi dute.

**GUREGAIAK / DEBAGOIENENKO GAZTETXE ETA GAZTE ASANBLADEN TOPAGUNEA**



IKER BARANDIARAN

Lehenengo topaketa hori Arrasateko gaztetxean egingo dute, baina aurrerantzean beste batzuk egin gura dituzte.

## Bihar, zapatua, ibarreko gazte batzarrek bat egingo dute Arrasaten

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, ibarreko zazpi herritako —Aramaio barne— gaztetxe eta gazte batzarrek topaketa egingo dute Arrasaten. Goizetik iluntzera arte mahai-inguruak, bazkaria eta beste egingo dituzte.

Ideaia aspaldikoa da. Euskal Herriko gaztetxeek eta gazte batzarrek koordinadora orokorra egin gura dute. Hainbat taldek praktikotasunetara jotzea erabaki dute, eta horregatik ibarka elkartzea erabaki dute.

Debagoieneko gaztetxeek eta gazte batzarrek bihar egingo dute lehenengo topaketa, Arrasateko gaztetxean. Ibarrekoak ez ezik, beste hainbat gonbidatu ere izango dira: Gasteiz, Barañain, Sorgintxulo (Santutxu) eta Irungo gaztetxeetakoak, hain zuzen ere.

10:00etan elkartuko dira gaztetxean. Lehenik eta behin, elkar hobeto ezagutzeko joko batzuk egingo dituzte. Horren ostean, mahai-ingurua egingo dute. Besteak beste, ibarreko herri bakoitzeko gaztetxe edo batzarren

egoera azalduko dute. Horrez gain, ibarreko ekitaldi guztiak batuko dituen asteroko agenda egin gura dute; eta ibarreko gaztetxeen atarazte (desalojoak) kasuetan zelan jokatu erabakiko dute.

Puntu horiek guztiak eztabaidatu ondoren, 12:30ean, hainbat ordezkari prentsaurrekoa egingo dute gaztetxean. Honako puntuak aldarrikatu gura dituzte: azkenaldian, Euskal Herrian hainbat gaztetxe itxi dituztela salatuko dute; bizi izateko egin diren okupazioei babes eman gura diete; ibarreko gaztetxeetan egindako lapurretak salatuko dituzte; eta ibarreko gazteen batzarra sortzeko asmoa aditzera emango dute.

*Ibarreko gaztetxeen eta gazte batzarren artean elkarlana bultzatzea dute helburu*

Prentsaurrekoaren ostean, topaketan esku hartuko duten lagunek bazkaria egingo dute gaztetxean.

**BESTE ESPERIENTZIA BATZUK EZAGUTU**  
Bazkalostean, kafe-tertulia egingo dute, eta Gasteizko, Barañaingo, Santutxuko eta Irungo gazteek euren herrietako esperientziak azalduko dituzte. Antolatzaileek kontatu digutenez, guztiak izango dute besteengandik zer ikasi, batez ere, ibarrean hasi berri diren gazte batzarrek.

Kafe-tertiariaren ostean, seriotasuna alde batera utzi eta olinpi-potea egingo dute. Umorezko bederatzi proba prestatu dituzte eta horiek egingo dituzte herriko hainbat puntutan: Kondekuan, Seber Altuben, Herriko Plazan, Ferreriasen, gaztetxean... Iluntzean, gaztetxean ikuskizunen bat egingo dute.

Horrez guztiaz gain, ekainaren 26an, Kubaren aldeko jaiak egingo dute Arrasateko gaztetxean. Besteak beste, karaokea, Linbo Txapelketa eta zozketak egingo dituzte, eta mojitoak zerbitzatuko dituzte. Iluntzean izango da.

## Musakolako gazte txokoa lekuz aldatuko dute, uda ostean

I.B.

Musakolako gazte txokoa lekuz aldatuko dute. Azken sei urteotan Udalak eta Txatxilipurdik kudeatutako zerbitzua San Isidro elizaren ondoko aretoan izan da. Maisu-maistren etxean ipiniko dute.

Udalak eta Txatxilipurdik erabaki dute Musakolako gazte txokoa lekuz aldatzea. Uda ostean, San Isidro elizaren ondoko aretotik Maisu-maistren etxera eramango du auzoko gazteek erabiltzen duten zerbitzu hori.

1997ko abendua ezker, Udalak eta Txatxilipurdik gazte txoko zerbitzua San Isidro eliza ondoko aretoan eman dute. Hori baino lehenago, Musakolako auzo alkatetzak zeukan egoitza txiki bat erabiltzen zuten. Baina, egoitza hura txikiegia zelakoan, San Isidrorra pasatu ziren, hura handiagoa eta aproposagoa zelako.

Elizaren areto hori auzoko hainbat elkarte erabiltzen dute, eta urtetan gazte txoko zerbitzua emateko ondo moldatu dira, beste taldeekin erabilera txandakatu. Zoritxarrez, aspaldian San Isidro eliza ondoko aretoaren ego-

era ez zen oso ona. Aretoa elizarena da, eta horregatik Udalak ezin du han ez konponketarik ezta aldaketarik egin. Gazte txokoaren erabiltzaileek arazo nagusia neguan izaten dute, berogailuek oso gutxi berotzen dutelako eta leihoak ez direlako ondo ixten. Hortaz, zaila da egoitza bero mantentzea.

Txatxilipurdik eta Udalak zerbitzu horrek neguan duen arazoa konpondu gura dute, eta horregatik beste egoitza batera aldatzea erabaki dute.

### MAISU-MAISTREN ETXEA

Aipatutako egoera kontuan hartuta, Udalak erabaki du gazteen dako zerbitzua Maisu-maistren etxera eramatea. Uda ostean dute aldaketa hori egiteko asmoa. Udalak eta Txatxilipurdik ez dute uste aldaketaren ondorioz zerbitzuak etenaldirik izango duenik.

Maisu-maistren etxeak hiru solairu ditu, eta gazte txokoa lehenengoan ipini gura dute. Batez ere, lehenengo solairuaren zati bat erabili gura dute. Zati horretan, orain komunak, hiru gela eta sukaldea daude. Hiru geletako hormak bota eta dena baten batu gura dute.



SERGIO AZKARATE

Maisu-maistren etxea aproposa da gazte txokoa ipintzeko.

**Monte taberna**

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

**DISTRITO**  
UNISEX



Abuztuan zabalik

Errekabarren 14 behean  
LASTER ZUEKIN

ZURE ILE APAINDEGI BERRIA

TEL.: 943 79 76 09 • ARETXABALETA

**MADINA ZURAK**  
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea  
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE  
e-posta: mz@madinazurak.com

**Aretz Taberna**

Markole 5  
943 79 14 67  
ARETXABALETA

## ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Argazkian, Dori Castillo, Toki Argiko presidente Manu Uriarte eta Idoia Ibañez. Castillo eta Ibañez eskularen irakasleak dira.

## Toki Argiko eskularen ikastaroak bukatu eta erakusketa ipini zuten

IKER BARANDIARAN

**B**ukatu da aurtengo Santa Marinako Toki Argi erretiratuen elkarteko ikasturtea, eta bukatu dira baita ere Santa Marinako jaiak. Azkeneko urteetan erretiratuen elkarteko ikastaroak bukatu eta erakusketa egin dute auzoko jaiekin batera. Hortaz, joan den egubakoitzetik domekara arte 140 bat lan egon ziren ikusgai Toki Argiko erakusketa aretoan. Lagun asko joan ziren hori ikustera, eta lanen egileak oso gustura gelditu ziren.

Toki Argi erretiratuen elkartean urritik uztaile bitartean hainbat ikastaro egiten dituzte: astelehen arratsaldeetan Mariasun Mendizabalek punta erakusten du; martitzen goizetan Idoia Ibañezek ehoziak eta makramea egiten erakusten du; martitzen arratsaldeetan Reme Berasategik eskulanak ematen ditu; eta eguazten arratsaldeetan Dori Castillok bainiak eta bordatua zelaz egin azaltzen du. Ikastaro horietan ia 80 lagunek esku

hartzen dute; guztiak emakumezkoak. Horregatik, irakasleek gonbita egiten diete gizonzkoen aisialdian eskulanak egin ditzaten, eta ikastaroetan apuntatzera anima daitezten. Datorren ikasturtean Toki Argi eskulanak egin gura dituenak irailean eman beharko du izena bulegoan, aste-

### Donostian ere erakutsi dituzte

**Santa Marinako erretiratuen elkarteko lagunek oso lan txukunak egiten dituzte. Horren erakusle da, esaterako, joan den urtean Gipuzkoako erretiratuen eskularen txapelketan lehenengo saria eskuratu zutela.**

**Horrez gain, eurek egindako lanak birritan egin dira Donostiako aretoetan erakusgai. Hala jarrai dezatela, aisialdiaz gozatzen!**


lehenetan, eguaztenetan edo egubakoitzetan, 11:30etik 12:30era. Esan beharra dago auzoko erretiratuek gain, beste lagun asko ere badabiltzala.

### 140 BAT LAN ERAKUSGAI

Irakasleek esandakoaren arabera, sasoi honetan erretiratu asko oporretan izaten dira, eta ez dituzte euren lanak erakusketara eramaten. Hala ere, 140 lan batu dituzte, eta ia bi areto bete ahal izan dituzte.

Besteak beste, honako lanak batu zituzten erakusketan: mahai-zapiak, kuxinak, zapiak, ohe-jokoak, aldizkari-gordetzekoak, fruta-ontziak, erretiluak, armairuak, margolanak, kutzak, errezelak eta ehozi-lanak. Esan beharra dago ikastaroetako ikasleen lanez gain, auzoko gizonzko batzuek, ikastaroetan esku hartzen ez dutenak, hainbat margolan eta eskulan ipini zituztela.

Toki Argi erretiratuen elkar-teak asmoa dauka Gabonetan beste erakusketa bat egiteko, baina horretarako ikasleek lan handiagoa egin beharko dute.



### Debagoieneko gastronomia txapelketa

Eguaztenean, Debagoieneko erretiratuen gastronomia txapelketa egin zuten Abaroa elkartean. Arrasateko (Abaroa, Uribarri eta Toki Argi), Antzuolako eta Aretxabaletako erretiratuek esku hartu zuten, eta Antzuolako Juanita Urbistondok eta Mari Cruz Lezetak egin zuten marmitako goxoen. Parte hartzaile guztiek afari-merienda egin zuten. //B.



### Santa Marinako nagusienei omenaldia

Joan den zapatuan, Santa Marinako jaietan auzoko nagusienei omenaldia egin zieten. Mesedeetako Amaren elizan meza egin zuten eta horren ostean, 180 erretiratutako bazkaria egin zuten, txaranga batek alaituta. Hainbat sari zozkatu zituzten, eta gizonzko eta emakumezko nagusienak omendu zituzten: Manuel Garcia (91 urte) eta Ursula Axpe (88 urte). //B.

ad **Ibabe**

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



**Gambrinus  
garagardotegia**

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

**CE ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko  
hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

## EZETZASMATU



UBANE MADERA

Non dago irudiotan ikusten duzuen jarlekua?

Arrastoa: jende asko ibiltzen da gertuan, erdialdeko plaza batean dago-eta.

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Molenbier garagardoa**  
33cl

**0,30€** 50 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

## AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**MARIJO BENITEZ**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Marijo!

Galderen erantzun zuzena:

**Monterron parkean.**

## ARRASATEKO HISTORIA

## Joan den mendea eta irratiaren erabilera (II)

URRE HAURTZAROKO... / VELEZ DE...

Irratia izan genuen berba-  
joan den astean, eta gaur  
haren gaineko azken kapitu-  
lua landuko dugu, betiko  
moduan, Josemari Velez de Men-  
tizabalen liburuari esker:

"Diego Valor, Pepe Iglesias *El Zorro* eta Alberto Oliverasek aurkezturiko *Vds. son formidables*-en gisakoak ziren irratsaiorik erakarriarrietakoak, afal ostean, sendi-giroan, irrati aparailutzar eta begidun haien ondoan esertzen ginenean. Etxe batzuetan, berriz, gurasoen logelan egoten zen irratia eta denok entzun ahal izateko, bolumena maila egokian ipini behar zen. Horrela, *Matilde*, *Perico* y *Periquin* komedia edo Bobby Deglaneren saio negar arazleei jarrai zekiekeen, oheko epeltasunetik. Igande arratsaldeetan *Carrusel deportivo*-k ekartzen zizkigun azken albisteak, gure arre-  
ta Jaengo futbol zelairaino iristen zelarrik, hiri andaluziar hartako futbol taldean Angel Arregi arrasatearra ari baitzen. Irratia zen, beraz, kanpoko mundua hurbilago-  
gotzen ziguna eta egunkariak ezku-  
tatzen ziguten errealitaterako bide bakarra; Radio España Independiente, Radio Pirenaica, Radio Paris eta baita Radio Andorra ere



Arrasatek ere bere irratia izan zuen 50eko hamarkadan: Emisora Parroquial de Mondragon.

ARTXIBOA

- ¡Aquí Radio Andorra! *Emisora del Principado de Andorra*, bere lelo kantariarekin - aliaturik zintzoenak ziren garaiko albisteen monotonía kolorebakarrekoari aurre egiteko.

Irratia izan genuen lagun, 1955eko maiatzaren 15ean, Joxe

*Irratia izan genuen lagun Joxe Arriaran pilotariaren garaipen historikoa zuzenean bizi izateko*

Arriaran arrasatear pilotariaren garaipen historikoa zuzenean bizitzeko, Espainiako buruz buruko txapelketan. Txapeldun berriaren Aupa Mondragon oihu zirraragarriak herriko entzuleengan sentsazio ahaztezinak piztu zituen. (...)

Irratiek abiarazi gintuzten kontsumoko ildotik, ez baitziren gutxi eta nolana hikoak moda produktua publikizatzen irratien uhinetatik helarazten zitzaizkigun mezuak. Gaurko ikuspegitik, iragarki haietako askok kalitate duina azaltzen zutela aitortu behar da. (...)

Arrasatek ere bere irratia izan zuen 50eko dekadaren. Eta komunikabideen arloko basamortu hartan Emisora Parroquial de Mondragón zeritzanak egundoko arrakasta lortu zuen, arrasatearroi albistearren hurbiltasuna biziara-  
zi zigularik. Urteak eman eta gero, ARKO bezala ezagutzen dugun erakundearen aurrerapen apal-  
tzat har genezake emisore hura. Gaur egun Lurralde Osasun Zentroa dugun eraikinean - hots, orduko Escuela Profesionalen - eratu zen irratia eta handik eskaintza bitxia eratu zen. *La bandera azul*, *Pequeña flor*, *Coros de Nabuco*, *Mustafá* eta beste zenbait abesti oroitzen ditut, entzuleek maizen eskatutako diskoen artetik: garaiko *hit parade* arrasatearra. Artistarik ospetsuenak, berriz, Luis Mariano eta Gloria Lasso - *Canastos* - Antonio Molina - *Soy minero* - eta Los Xei, euren *Por montes caminos y aldeas, de Guipuzcoa la dulce y bella...*."

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko uztailaren 23a / 118. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorla Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Albinako itxitura eta udal zerbitzuak, osoko batzarrean


UBANE MADERA

Datorren astean egingo dute oporren aurreko azkeneko osoko bilkura. Besteak beste, Albinako itxitura eta udal zerbitzuen esleipena aztertuko dituzte zinegotziek.

Berez, oraingo astean zen udalbatzarra opor aurreko azkeneko batzarra egiteko, baina gai gutxi zituztela-eta, astebetetz atzeratu dute: datorren eguaztenean, hilak 28, izango da, 18:00etan. Zinegotziek Albinako itxitura eta udal zerbitzuen esleipena aztertu beharko dituzte, besteak beste.

### ALBINAKO ITXITURA

Albinako itxitura dela-eta, kontua da jabe pribatuek 80ko hamarkadan ipinitako demandaren gaineko sententzia iritsi zaiola Udalari. Haren arabera, Albinako hesia bere horretan gera daiteke, beti ere, dauden hiru sarrera eta bideko parrilla kentzen badituzte. Arazoa da horiek kenduz gero, abereak errepidera aterako direla. Horrenbestez, hiru irtenbide proposatu dizkiote Udalari: hesia errepidearen bazterreraino ekartzea (Udalaren eskumenaren mugaraino); Udalak behar duen lur-zatia erostea edo zati hori desjabetzea. Zer



Albinako itxiturarekin zer egin erabaki beharko dute zinegotziek eguaztenean.

egin erabaki beharko dute eta seguru aski kasuaren ardura duen abokatua batzarrean izango da.

Bestalde, udal zerbitzuen esleipenari dagokionez, orain arte egingako esleipenez gain, osoko batzarri jakinaraziko diote kale garbiketa eta lorategien eta hilerrien mantenuaren zerbitzua ere esleitu dituztela. Hain zuzen ere, Gas-

teizko Indoor Garden SC enpresak egingo ditu lanok. Gauzak horrela, besteak beste, enterramenduak egiteko, ur eta argindar kontagailuak irakurtzeko eta kiroldegia kudeatzeko zerbitzuak esleitzea falta zaio Udalari. Baita ur eta saneamenduaren mantenua ere. Azken horren kasuan, gainera, Udalak ez du eskaintzarik jaso.



## Barajuenen, Andramari jaiak

Barajuendarrak jaietarako gertu-gertu daudela jakinarazi digu Lourdes Gardoki auzo alkateak. Andramari egunean, besteak beste, 12:00etan meza egingo dute, auzoko abesbatzak abestuta. Eta ohiturari utsita, 18:00etan, ume txikiak ekarriko dituzte Andre Marirengana, bedeinka ditzaten. Karta-jokoak ere izango dira egun horretan. Bigarren egunean, berriz, 12:00etan ere meza esango dute, auzoko hildakoen alde. Eta bai eguerdian zein gauean, auzotarrek bazkaria eta afaria egingo dituzte. Auzo alkatearen esanetan, ia-ia auzotar guztiak joaten dira, 80-100 bat lagun. Arratsaldean, berriz, umeendako jolasak egingo dituzte eta Iñigo Magoak saioa egingo du. Eta jakina, horrenbeste arrakasta duen urdai-azpiko apustua ere egingo dute Barajuengo jaietan.

## Andramari jaietarako guztia gertu dute Oletan

UBANE MADERA

Andramari egunarekin batera iristen dira Oletako jaiak. Abuztuaren erdialdean izan arren, dagoeneko guztia gertu-gertu dute oletarrek. Kontatu digutenez, hiru eguneko jaiak antolatu dituzte. Tartean, Foru Aldundiak antolatuta, umorezko antzerki saioa izango da.

Andramari egunean, 12:00etako mezarekin hasiko dituzte jaiak. Horren ostean, andreen eskulanen erakusketa ipiniko dute, plazan; gero Aurrekua dantzatu dute; Vermouth dantza izango da horren ostean; arratsaldean, umeendako jolasak, eta gauean, erromeria.

Hurrengo eguna ere meza esanez hasiko dute, auzoko hildakoen alde. Gero, Oletan jaiotakoek bazkaria egingo dute, dantzaldi eta guzti. Horren ostean, 20:00ak inguruan, zozketa egingo dute: Benidormera bidaiaria bat. Eta bukatzeko, hirugarren egunean, abuztuaren 17an, besteak beste, tute, briska eta mus txapelketak jokatu dute.

### ZIRKO TTIPIA

Eta lehen esandako moduan, abuztuaren 15ean, Arabako Foru Aldundiak antolatuta, Zirko Ttipia izeneko taldearekin umorezko antzerki-saioa egingo dute Oletan. *Giriguai* lana antzeztuko dute, 18:00etan.



Aurreneko egunean, andreek egindako eskulanen erakusketa ipiniko dute, plazan.

## LABUR

### Argindarra eta ura uztailan kobratuko dute

Udaletik jakinarazi digutenez, maiatzari eta ekainari dagokion uraren eta argindarraren kontsumoa uztailan kobratuko dute. Hori bai, ur eta argindar kontagailuak irakurtzeko udal zerbitzua esleitu barik dagoenez, gutxi gorabeherako kontsumoa kobratuko dute. Horretarako, azken lau irakurketetan izandako kontsumoaren batz bestekoa egingo dute. Gero, irailean kobratuko dituzten ordainagiritan eguneratuko dute egoera.



## TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Boitika	945 44 50 03
Udaletegia	945 44 50 16
Erizainitza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuñako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** Izartxoaren duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu behariko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

## OHARRAK

## BARIKUKO ZINEMA

Jakinarazi digutenez, zine emanaldietan aldatzeko izan dira. Kontua da joan den barikuan *El Señor de los Anillos* trilogiaren aurreneko zatia ipintzeko zirela, baina, arazo teknikoaren eraginez, ezin izan zutela ipini. Horren ondorioz, gaur, barikua, ipiniko dute abenturazko eta fantasiarako film horren aurreneko zatia: *La comunidad del anillo*; gero, hurrengo barikuan, hilak 30, ipiniko dute bigarrena: *Las dos torres*. Eta hurrengo egunean, zapatuan, hilak 31, emango dute azkena: *El retorno del rey*. Azken horren kasuan, 22:30ean hasi beharrean, 22:00etan hasiko da emanaldia, filma oso luzea da-eta. Eta abuztuko barikuetarako ere gertu dute egitaraua herriko zinema-zaleek. Hala, abuztuaren 6an, *Cuando menos te lo esperas* (komedia) emango dute. Abuztuaren 13an, *House of Sand and Fog* (drama). Abuztuaren 20an, *Monster* (drama). Eta bukatzeko, abuztuaren 27an, *La Sonrisa de Mona Lisa* (drama) emango dute.

## Uribarrin, San Esteban jaiak, abuztuaren hasieran

UBANE MADERA

**Abuztuaren hasieran, San Esteban da. Eta San Esteban egunean auzoko jaiak ospatzen dituzte Uribarriko bizilagunek. Hain zuzen ere, abuztuaren 3rako, 4rako eta 5rako antolatuta dituzte ekitaldiak.**

Halakoetan ohienez, 12:00etako mezarekin hasiko dituzte San Esteban jaiak uribarriarrek, abuztuaren 3an. Egun berean,

mus eta briska txapelketak jokatzen hasiko dira, arratsaldean, eta gauean erromeria izango dute, dantza saiotxo egiteko.

Bestalde, hurrengo egunean, eguerdian karta-jokoen finalak jokatuko dituzte. Arratsaldean, berriz, Kurtzetan plater tiroketa egingo dute eta auzoan umeendako jolasak izango dira. Eta gauean, erromeria egingo dute.

Eta bukatzeko, abuztuaren 5ean, eguena, afaria egingo dute auzotarrek.



ARTXIBOA

Abuztuaren 3an, 4an eta 5ean izango dira Uribarriko jaiak.

## BOTEPRONTOAN/ Juan Antonio Aretxaga · Untzillako eta Suñako auzo alkatea

*“Gure artean ondo konpontzen gara eta harreman ona eta gogoia izanez gero, gauzak egin daitezke”*

**U**ntzilla eta Suña auzoak izango ditugu berbera jarraian. Juan Antonio Aretxaga auzo alkateak etxean hartu gaitu auzoko kontuak esateko:

**Untzillan bizi bai, baina hementxo zara?**

Elosun jaiotakoa naiz, eta gero Aretxabaletan bizi izan nintzen, aita hangoa zen-eta. Baina 14 urte daramatzat hemen ezkondua eta guztiz aramaioarra sentitzen dut nire burua. Mendibitzu baserrian bizi gara. **Alkate zaren aurreneko aldia da? Zela aukeratzeko duzue?**

Bai. Bozketan bidez. **Lan asko ikusten duzue datozen lau urteotarako?**

Auzoaren egoera ez da txarra. Uste dut beste auzo batzuk Untzilla baino okerrago daudela. Suña eta Untzilla ondo daude. Badaude gauzak egiteko, baina, kexatu ez gara egin behar.

**Zer daukazue egiteko, bada?**

Errepidearen zati batean istripu asko egoten dira. Oso arriskutsu dago. Asmoa da hori konpontzea. Uren kanal bat doa ondotik, eta gura dugu hodia sartu, porlana bota eta horrela ura kanalizatu eta bidea zabaldu; ea automobil bi gurutzatzeko beste leku lortzen dugun.

**Non dago zati hori?**



*“Auzotik eliza ondora (zaborrak-eta han botatzen dira) zati bat ihunpean dago”*

Aretxabaletatik igota, bada hiruki moduko errepide zati bat. Handik eliza aldera etor zaitezke, zuzen joanez gero, Untzillara edo Zabolara. Hiruki horren goiko punta da leku arriskutsua. Ez da ikusten ezer ere ez.

**Lan hori zeinek egin behar du?**

Uren kanalak garbitzeko eskatu genuenean, hori egiteko ere eskatu genuen, baina, Udalak esan zigun auzo-lanean egin behar direla horrek gauzak. Diote, diru gutxi etortzen dela Diputaziotik udaletxera eta nik uste dut hori auzoetan igartzen dela gehien. Horren ondorioz, horrek lan guztiak geuk egin behar izaten ditugu, auzo-lanean. Errepidea konpontzeko eskaera eginda dago, baina oraindik ez didate baietza edo ezetza eman. Irailetik aurrera egiteko asmoa dugu. Ordurako esango didate zerbait.

*“Eskaera eginda dugu argindarraren kableak, airetik doazenak, zati batean lurpean sartzeko”*

**Gaia erabat aldatuz, egundoko oinaztuak daude gaur; iaz hemengo elizan jausi zen bat, arriskuren bat duzue, ala?**

Hemen oinaztarri asko jausten dira. Lehen aipatutako moduan, dirulaguntza gutxi etortzen dira eta horrek eragina du. Oraingo tximistorratza dirulaguntza barik ipini genuen. Elizara sartu zenean erabaki genuen ipintzea, izan ere, lehenago ere baserri batzuetan sartu zen, Untzillan eta Suñan; Muruk su hartu zuen oinaztarriarekin... Elizara sartu zenean, Emilio abadeak ahalegin handia egin zuen tximistorratza ipintzeko. Hala, haren ahaleginarekin eta auzokoekin lanarekin ipini genuen. Konponketa batzuk egiteko genuen dirua erabili genuen horretarako eta guk egin genituen konponketak.

**Eta horrekin nahikoa duzue?**

Ez, ez da nahikoa. Hemen besteren bat beharke zen eta baita Suñan ere. Suñan ez dago ezer ere ez, baina...

**Bestela, ura, gasa, argindarra...**

Ura sartuta dago, gasa ez. Orain urte pare bat batzar bat egon zen horren gainean, baina, hortxe geratu zen. Gehiago ez dira etorri. Eta argindarrari dagokionez, plan foralean sartuta dago, baina auskalo noiz egingo duten.

## LABUR

**Bihar, zapatua, kontzertua izango da kultura etxeko zine aretoan**

Araba Kulturalaren barruan, bihar kontzertua izango da, 20:00etan. Bóreas Cámara taldeak joko du. Honakoek osatzen dute taldea: Pedro Basterra (zeharkako flauta eta flauta ezitia); Andoni Brea (oboea); Begoña Divar (klarinetea eta flauta ezitia); Jose L. Dorronsoro (gitarra eta mandolina); Pablo G. de Eulate (klarinetea eta flauta ezitia); Ricardo Brea (biolontxelo) eta Iñaki Alarcia (perkusioa).

**Birziklatzeko bi puntu berri daudela gogora ekarri die Udalak herritarrei**

Aramaioko Udalak gogora arazi gura die herritarrei, Aramaion birziklatzeko bi puntu berri daudela. Bata *Beterinarixuaren txabola* izeneko, sukaldetan erabilitako olioak eta erabilitako pilak batzeko da. Txabolako atea egun guztian zabalik dago, hortaz, norberak gura duenean eraman ditzake birziklatzekoak. Eta birziklatzeko beste puntu Iturroste garajea da. Han autoetan eta bestelako motorretan erabilitako olioak batzen dituzte, garajeko ordutegian. Kontua da herritarrek ez dituztela behar beste erabiltzen aipatutako birziklatzeko bi puntuak; hala, Udalak erabilera bultzatzeko etxeko bidali die herritarrei gogora arazteko bandoa.

**Bañera kirol elkartearen etorkizunak oraindik zalantzan segitzen du**

Iraila baino lehen Txirritola aldizkariaren azkeneko alea argitaratu behar dugunez, Bañera kirol elkartearen egoera zein den galdetu diegu elkarte zuzendaritza batzordekoiei. Eta zoritxarrez, jakinarazi digute oraindik ez dela inor aurkeztu lan horrekin arduratzeko gertu dagoenik. Horrenbestez, oraingoz behintzat, Bañera kirol elkarte desagertzeko zori-zorian dagoela esan genezake.

## ERRETRATUZAHARRA

Arrasateko aurreneko  
Udal Liburutegia

**L**aster, frantziskotarren eraikina zaharberritu ostean, liburutegia eta hango zerbitzuak eraikin horretara eramango dituzte Monterrondik. Baina ez da lehenengo aldia halako zerbaite egiten dutena. Izan ere, eta oraingo asteko argazki zaharrak erakusten duen moduan, Arrasateko aurreneko Udal Liburutegia Garibairen etxean zabaldu zuten. *Casa Teléfonos* deitzen zioten etxe hari liburutegi izan baino lehen, telefonogunea hantxe zegoen-eta. Gero itxi egin zuten eta Udal Liburutegia zabaldu. Hain zuzen ere, inaugurazio eguneko argazkia ekarri dugu horren erakusle. 1966ko ekaina zen. 1986ra arte egon zen liburutegia Garibairen etxean, harik eta Monterronera eramán zuten arte.

Argazkian ikusten duzun moduan, erakundeetako ordezkariak Udal Liburutegitik ateratzen dabilta, eraikina inauguratu eta gero. Aurre-aurrean dagoena gobernadore zibila zen. Francoren garaian halako ekitaldi guztietara etortzen zen gobernadorea. Haren atzean, Juan Manuel Azkoaga Cano dator, sasoiko Arrasateko alkatea. Hirugarrena Emilio Muxika alkateordea zen. Azkeneko biak, berriz, ez da argi antzematen zeintzuk diren. Eta nahiz eta gure argazkian agertu ez, esan beharra dago Arrasateko aurreneko liburutegia Maria Urbana izan zela.

**Argazkia eta informazioa:**

Arrasateko Udala.

Urtea: 1966ko ekaina.



## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Baserria  
zutik  
zegoenean

**J**oan den astean, Larreako baserriaren inguruan etxebizitzak egiten hasi zireneko argazkia erakutsi genizuen. Hain zuzen ere, argazki zaharrean Larrea baserria zutik ikusten zen, baina ordurako hondeatzeko makinak lanean hasita zeuden. Orain erakusten dizuegun argazki zaharra, berriz, lanok hasi baino astebete lehenago ateratakoa da.



≈ 1992 Baserria bota zutenean batek baino gehiagok pentsatuko zuen: "Akabo etxearen inguruan egoten ziren lore ederrak!"



2004 Urtarrilaren 9an bota zuten baserria ez da, baina, inguruotan falta den eraikin esanguratsua bakarria; La Rotonda ere falta da-eta.

ESKORIATZA



Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

S. CARRASCAL S.L.


Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikari erakusketak**Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a  
Tel./Faxa: 943 79 01 82

KONTRATAK

IRYROK S.L.  
ERAIKUNTZAKMeatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATEUGARAN  
jatetxeaGaragartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



*Ondo ibili!*

**Arrasate**  
PRESS  
Irailaren 3an, berriz zuekin

# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGRU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behe. ezk. .... 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Munar 10 ..... 620 12 48 43

## ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otalora lizentziaduna 18 ..... 943 71 27 93
- INSTITUTO OPTICO. BIOACUSTICA Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ..... 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ..... 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. .... 943 77 14 72

## KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma ..... 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) .. 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk ..... 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea ..... 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ..... 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ..... 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. .... 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 ..... 943 79 25 98
- INSTITUTO OPTICO (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 22 ..... 943 79 71 68
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 ..... 943 79 29 95
- PORTALOI OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Erdiko kale 10. .... 943 79 65 56

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzezino, 2 ..... 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ..... 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ..... 659 58 66 89

## PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behe eskuma ..... 943 79 97 46

## PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 ..... 943 79 79 46
- BEGOÑA BARCINA Otalora lizentziaduna 29 ..... 635 70 88 88
- LANDER GARMENDIA Obenerreka 2, 7H ..... 943 79 35 86
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ..... 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ..... 943 79 88 16

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. .... 943 79 44 22